


[ARRASATE](#)

Kirola Kalera Eguna zapatuan, herriko taldeen jardunaren erakusleiho

Xabi Urzelai 2019-06-06 11:18



Gaztetxoak xakean, Portaloian.



Kirola Kalera Eguna egingo dute zapatuan Arrasaten. Herriko kirol talde guztiek urtean zehar egiten duten lanaren erakusleiho izan gura du egunak, eta horretarako, jarduera horiek kantxetatik edo berdeguneetatik atera eta herriko kaleetara ekarriko dituzte.

Egunak hainbat helburu garbi ditu: Arrasaten egiten diren kirol jarduerak herritarrei erakustea, herritarrei jarduera horiek probatzeko aukera ematea eta kirola bera kalera ateratzea. Eta horretarako, Arrasateko erdialdeko zazpi gunek aukeratu dituzte:

- **Iturriotz kalea, Elizako pareta:** (11:00-13:00) Pilota Elkartea: takoak jartzeko txokoa eta pilota partidak.
- **Herriko Plaza:** (11:00-12:00). Errugbi Elkartea: Joko desberdinak. (12:00-13:00). Atletismo Elkartea: altuera saltoa, xabalina jaurtiketa...
- **Biteri Plaza:** (10:30-13:00). Borroka kirolak. 10:30ean hasita Desoreka taldea (Judo). 11:45ean hasita: ABAE –Judo, Kempo,Aikido-. 11:00etan hasita SUDCen eskutik: Doke jokoak. 12:00etan hasita. Junpinga probatzeko aukera monitore baten laguntzarekin. 10:30etik 12:00etara: Dorletako Txirindularitza Elkartea: Gimkana.
- **Jose Mari Arizmendiarrera Plaza:** (11:00-12:00) Arizmendi K.E.: Boleibola. (12:00-13:00) Ointxe! elkartearen eskutik hirusko saskibalo partiduak, hiruko jaurtiketen txapelketa...(10:30-11:30) Mondra Futbol Taldea: hirusko futbol partiduak, porteria punteria txapelketak... (11:30-12:30). Arrasate Eskubaloia: hirusko partiduak eta antzerako jarduerak burutzea. (12:30-13:30) Mondrate areto futbol taldearen eskutik: hirusko partiduak, penalti jaurtiketak...
- **Arano eta Garcia Maisu-Maistrak kalea:** (11:00-12:30). Arrasate-Arlutz Xake Taldea: xake partidak antolatuko dituzte.
- **Portaloia:** (11:00-11:30). Sasoibide: ibilaldia burutu aurreko beroketa monitore baten gidaritzapean.
- **BAZ ingurua:** (11:00-12:30). DYA: Lehen sorospenen hastapena emango dute.

Ekontza guztiak bukatzean, 13:30ak aldera, Kirola Kalera egunean parte hartu dutenen artean otartekoa banatuko da Herriko Plazan.

[Kirola Arrasate](#)

Erantzun